

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak "sozialki arduratsuak" diren ekimenetarako pizgarri fiskalak arautzen dituen foru-legea onartu du

Foru Parlamentura bidaliko da han eztabaidatu eta bozka dezaten

Miércoles, 20 de marzo de 2013

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran onartu du, "sozialki arduratsuak diren proiektuak" gauzatzeko ekarpen ekonomikoak egiten dituzten pertsona, enpresa eta erakundeei pizgarri fiskalak arautzen dizkien foru-legearen proiektua. [Ekimen hori Yolanda Barcina Lehendakariak aurkeztu](#) zuen iragan martxoaren 4an laguntza sozialeko proiektuei emandako laguntza sustatzeko eta astearte honetan Gizarte Politiken kontseilariak aurkeztu die [erakunde sozialei eta enpresei](#).

Era horretan, arrazoen azalpenak dioenez, "Nafarroako Gobernuaren gizarte-politikak bideratu nahi dira, talde-sorta ahulenen garapen eta autonomia pertsonal aldera edo zailtasun berezian daudenena, esaterako, desgaitasunak dituzten pertsonak, emakume-talde zehatz batzuk, eta, orokorrean, gizarte-bazterketako arriskuak dauden pertsonak". "Nafarroako gizartea mugiarazi nahi da ere gure ingurune ahulenei emandako laguntzan gizarte-laguntzako jarduerak garatzen dituzten proiektuen finantzaketan ahalegin guztia egin dezaten", erantsi du.

Proiektu legegileak, Foru Parlamentura bidaliko dena eztabaida eta bozka dezaten irakurketa bakarreko prozeduran, "nabarmen" hobetzen du, arrazoen azalpenaren arabera, 'Comprometido Socialmente' zigilua duten proiektuen hobari fiskala, fundazioei egindako ekarpenengatik eta babesagatik emandako beste pizgarri batzuen aurrean. Horretarako, 1996ko foru-legeari xedapen gehigarri bat eranstean zaio (hamargarrena); xedapen horrek fundazioen eta babeseko jardueren zerga-erregimena arautzen du.

Pizgarri fiskalak sozialki konprometituta dauden proiektuei emandako dohaintzetarako:

Pertsona Fisikoek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) kuotatik 'Comprometido Socialmente' zigiluarekin aitortutako proiektuei dohaintzan emandako kopuruen % 40 murrizteko eskubidea izango dute, haren oinarri likidagarriaren gaineko % 30eko mugarekin.

Aldiz, Sozietateen Zergari lotutako pertsona juridikoek bi hobari izango dituzte. Alde batetik, kengarria den partida-izaera izango dute erakundeekin egindako lankidetzeta-hitzarmenen arabera dohaintzan emandako edo asebetetako zenbatekoak. Bestalde, bere zenbatekoaren % 20eko kuota likidoaren kenkaria praktikatzeko eskubidea izango dute.

Zerga-oinarriaren kengarria den partidaren zenbatekoak aurretiazko zerga-oinarriaren % 30 ezingo du gainditu eta ezta negozio-zifraren zenbateko garbiaren 3 bider mila ere.

Bi kasuetan, hobari fiskalak foru-lege baten bidez finkatuko dira eta 1996ko Foru Legean ezarritako beste zenbaitekin bateraezinak izango dira. Halaber, ekarpen eta dohaintzen erakunde onuradunek beren helburua sozialki konprometitutako proiektuei ziurtatu beharko die eta Nafarroako Zerga Ogasunari jakinarazi, kontrola egin dezaten.